



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Herri Administrazioetan Hizkuntza
Normalizatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Normalización Lingüística de
las Administraciones Públicas

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Nombre **ANGEL LOBERA REVILLA**
Fecha de firma: **2014-01-16 09:37:38**
Validación:  **Verificación correcta**

Eugenio Artetxe Palomar
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Segurtasun Saila

Jaun hori,

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea bosgarren aldiz aldatuko duen Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan abenduaren 20an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea bosgarren aldiz aldatuko duen Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du Eusko Legebiltzarrari eragiten dion barruko hauteskunde legeria ezartzeko (10.3 artikulua). Halaber, 26. artikuluan Eusko Legebiltzarra arautzen da: Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari kopuru berdinak osatuko du Eusko Legebiltzarra, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak; Lurralde historikoa da hauteskunde barrutia; Proporziozko ordezkartzaren irizpideari jarraituz egingo da hautaketa lurralde historiko bakoitzaren baitan; Eusko Legebiltzarra lau urterako hautatuko da; Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko du bere kideen hautaketa, eta bere lur esparruan betetako postu eta karguei eragin diezaieten hautaezintasun- eta bateraezintasun-

arrazoiak finkatuko; Eusko Legebiltzarkideak ukiezinak izango dira beren kargualdian emandako boto zein iritziengatik; Beren kargualdian ezin izango dira atxilotu ez atxiki autonomia erkidegoaren lur esparruan egindako delituengatik, delitu gori-goria izan ezik eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokio erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz erabakitzea; autonomia erkidegoko lurraldetik kanpo, Auzitegi Gorenaren zigor arloko salan argitu ahal izango da erantzukizun penala, modu berean.

Eskumen horien babesean onartu zen ekainaren 15eko 5/1990 Legea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa. Lege honek hainbat aldaketa jasan ditu, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak, urriaren 4ko 6/2000 Legeak, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eragindakoak.

Bestalde, estatu mailan aintzat hartzekoa da ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoa. Arau honek aldaketak jasan ditu ere, besteak beste urtarrilaren 28ko 2/2011 eta urtarrilaren 28ko 3/2011 Lege Organikoen eragindakoak.

Euskal araudia 2011. urteko lege organikoen ekarritako berritasunetara egokitu behar dela eta, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeek ekainaren 15eko 5/1990 Legea bosgarren aldiz aldatuko da, eta aukera baliatuko da beste moldaketa batzuk egiteko.

Lege Aurreproiektuak 53 artikulua, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta bi azken xedapen ditu. Xedapen indargabetzailearen eraginez indarrik gabe lagako dira ekainaren 15eko 5/1990 Legearen zenbait artikulua, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketetan. Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektuan badago hizkuntza aipurik:

-Hamabigarren artikulua bidez hirugarren paragrafoa erantsiko zaio ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 36. artikuluari, eduki honekin: *“Nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen akordioak, euskaraz zein erdaraz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena”*.

-Hamahirugarren artikulua bidez aldatuko da ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 38. artikulua 3. paragrafoa, honela utziz: *“Hauteskundeetarako atal, mahai eta lekuen behin betiko zerrenda, euskaraz eta gaztelaniaz, Hauteskunde Erroldaren Bulegoko web orrian argitaratuko da, bozketa izan baino hamar egun lehenago, eta horrekin batera, udaletan ere jendaurrean jarriko da informazio hori”*.

-Hogeita bigarren artikulua bidez aldatuko da ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 68. artikulua 3. paragrafoa, honela utziz: *“Hauteskunde-prozesuan, Eusko Jaurlaritzak kanpaina instituzional bat egiteko aukera izango du, herritarrei hauek jakinarazteko: hauteskundeak noiz eta non izango diren, nortzuk diren hautesleak, nola bozkatzeko den, posta bidez bozkatzeko zer egin behar den atzerrian bizi direnak barne_ eta bozkatzeko prozesuari buruzko bestelako inguruabar guztien berri emateko; hori egitean ez du, inoiz ere, hautesleen boto-aukeran eragin beharko. Kanpaina instituzional hori iragartzeko, autonomia-erkidegoarenak diren hedabide publikoetako doako tarteak baliatuko ditu gobernuak, eta baita estatuarenak izanik ere, dena delako autonomia-erkidegora mugatzen diren hedabide publikoetako doako tarteak. Kanpaina horretan bermatuko da bi hizkuntza ofizialak erabiltzea”*.

Bestela, aldatuko den Eusko Legebiltzarrerako hauteskundera buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean hizkuntza aipu gehiago daude:

-38.3 artikulua dio, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketan, hauteskundera atal, mahai eta lekuen argitalpena lurralde historikoko zabalkunde handieneko bi egunkarietan ere egingo dela, euskaraz eta gaztelaniaz, bozketan izan baino hamar egun lehenago, eta horrekin batera, udaletan ere jendaurrean jarriko da informazio hori. Lehen aipatu bezala, artikulua hau Lege Aurreproiektuaren hamahirugarren artikulua moldatuko du.

-91.1 artikulua jasotzen denez, boto-txartel, gutunazal eta gainerako hauteskunde agiriaren testuak autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo dira idatzita.

-95. artikulua arabera, artekariak eta ahaldunek ordezkatzeko duten politika-erakundearen izen, ikur eta izenburua erakusten dituzten ikur-buruak edo itsaskiak erabili ahal izango dituzte, Artekaria-Interventor edo Ahalduna-Apoderado testu lebidunarekin batera, identifikazio gisa.

-103. artikulua arabera, mahaia eratu ondoren, boto-emanketa lehendakariak “*boto-emanketa hasten da*”, nahiz, “*empieza la votación*” hitzak ozenki esanez hasiko da.

-112. artikulua xedatzen denez, arratsaldeko zortzietan lehendakariak ozenki esango du “*boto-emanketa bukatzerá doa*”, nahiz, “*se va a concluir la votación*”.

-132.Bis artikulua V. atalean jasotzen da, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan azalduko direla hauteskunde-mahai bakoitzeko hautestontzi elektronikoko softwarean eta botoa emateko pantailan dauden mezuak, eta bai hauteskunde-agiriaren testua ere. Halere, artikulua hau indarrik gabe geratuko da Lege Aurreproiektuaren xedapen indargabetzailearen ondorioz.

-132.Quater artikulua bosgarren paragrafoan jasotzen denez, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketan, hauteskunde banda magnetikoa duen txartela mahaiburuari eskura emango dio eta mahaiburua guztien begi-bistan “*botoa eman du*” edo “*vota*” esango du. Halere, artikulua hau indarrik gabe geratuko da Lege Aurreproiektuaren xedapen indargabetzailearen ondorioz.

Hizkuntza aipu horiek guztiak egokiak dira, eta bat datoz indarrean dagoen hizkuntza araudiarekin. Alabaina, Lege Aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, proposamen hauek egiten ditugu:

b.1- Lehen aipatu bezala, Aurreproiektuaren hamabigarren artikulua bidez hirugarren paragrafoa erantsiko zaio ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 36. artikuluari, eta honela geratuko da: “*Nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen akordioak, euskaraz zein erdaraz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena*”.

Nabarmendu behar dugu Lege Aurreproiektuaren bi bertsioak ez datozela bat, gaztelaniazkoak 36. artikuluari hirugarren paragrafoa erantsiko zaiola (“*se adiciona un apartado 3*”) dioen bitartean euskarazkoak hirugarren paragrafoa aldatuko dela baitio, eta euskarazko testua zuzendu beharko da beraz, hirugarren paragrafoa Lege Aurreproiektuak sortuko duelako.

Orobat, euskarazko testuan, “euskaraz zein erdaraz” jaso ordez, “euskaraz zein gaztelaniaz” jasotzea egokiagoa izango litzateke, kontuan hartuta Autonomia Estatutuak (6. artikulua), Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hizkuntza araudiak oro har, gehi ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 38.3 artikulua, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketan, eta Lege Aurreproiektuaren hamahirugarren artikulua, *euskara* eta *gaztelania* izendatzen dituztela autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialak.

b.2- Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 44.1 artikuluan, betiere ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketan, adierazten da izendapenaren berri emango zaiela hauteskunde mahaietako kideei, zozketa egin eta hiru egunetara, eta dituzten eginkizunei buruzko argibideen eskuliburua banatuko zaiela.

Uste dugu bermatu behar zaiela hauteskunde mahaietako kideei argibideen eskuliburua euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko aukera. Izan ere, eskuliburu horren bitartez informazio bat helarazten diete botere publikoek mahaietako kideei, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen babesean, herritarrek herri administrazioen informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea daukate.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 44.1 artikulua osatzeko proposatzen dugu, horrela utziz:

-Hautaketak, egin ondorengo hiru egunen barruan jakinarazi beharko zaizkie doazkienei; jakinarazpenarekin batera, mahaikideei dituzten eginkizunei buruzko argibideen eskuliburua banatuko zaie, euskaraz eta gaztelaniaz. Mahaiburu...

-En los tres días posteriores a la designación, ésta deberá ser notificada a los interesados. Con la notificación se entregará a los miembros de las Mesas un manual de instrucciones sobre sus funciones, en euskera y castellano. Los designados...

b.3- Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 103. artikuluan jasotakoari jarraiki, mahaia eratu ondoren lehendakariak “*boto-emanketa hasten da*” (“*Botoemanteta hasten da*”, gaztelaniazko bertsioan) nahiz “*empieza la votación*” hitzak ozenki esanez hasiko da.

Bistan da “boto-emanketa” edo “Botoemanteta” ez direla hitz zuzenak gaur egun, euskaraz aritzeko. Gogoratu behar dugu ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 44.1 artikuluari jarraiki hauteskunde mahaikideei argibideen eskuliburua ematen zaiela, bertan jasoko dela zer esan behar duen lehendakariak bozketa hasterakoan, eta eskuliburuaren edukiak bat etorri beharko duela legearen edukiarekin.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 103. artikulua zuzentzeko proposatzen dugu, lehendakariak “bozketa hasten da” edo “empieza la votación” esateko aukera izan dezan.

b.4- Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 112. artikuluan xedatzen denez, arratsaldeko zortzietan lehendakariak ozenki esango du “*boto-emanketa bukatzera doa*”, nahiz, “*se va a concluir la votación*”.

Bistan da “boto-emanketa” ez dela esamolde zuzena gaur egun, euskaraz aritzeko, gogoan hartu behar dugu hauteskunde mahaikideei argibideen eskuliburua ematen zaiela, eta hortaz, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 112. artikulua zuzentzeko proposatzen dugu, lehendakariak “bozketa bukatzera doa” edo “se va a concluir la votación” esateko aukera izan dezan.

b.5- Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan adierazten da euskara eta gaztelania direla hizkuntza ofizialak, herritarrek biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela, eta autonomia erkidegoko erakunde komunei dagokiela bi hizkuntzen erabilera bermatzea, euren ezagutza ziurtatzeko neurriak hartzeaz gain. Adierazpen horrekin bat, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua).

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen III. Tituluan hauteskunde-administrazioa arautzen da, eta argitzen da euskal hauteskunde-administrazioa autonomia erkidegoko hauteskunde batzordeak, lurralde historikoetako hauteskunde batzordeak, eskualdeko hauteskunde batzordeak eta hauteskunde mahaiek osatzen dutela. Legearen 18. eta hurrengo artikuluetan zehazten da nola osatzen diren hauteskunde batzordeak, eta 29. eta hurrengoetan zerrendatzen dira haien zereginak, besteak beste kexak, erreklamazioak eta errekurtsioak erantzutea dagokiela (29.f, 30.1.b, 34., artikulua). Halaber, 35. artikuluan esaten da kontsultak era idatzian aurkeztuko direla.

Gauzak horrela, euskara eta gaztelaniaren ofizialtasuna aintzat hartuta, badirudi bermatu beharko litzatekeela herritarrei, alderdi politikoei, koalizioei, federazioei eta hautesle taldeei euskal hauteskunde-administrazioarekiko harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea, bai eta erantzuna erabilitako hizkuntza berean jasotzekoa ere. Egia da honek zailtasunak dakartzala, batez ere kontuan hartuta ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 43.2 artikulua araberako hauteskunde mahaia herritar soilek osatzen dituztela, zozketa bidez hautatu ostean, eta gehiegizkoa dirudi euskararen ezagutzea eskatzea herritar horiei.

Alabaina, ematen du harreman idatzietan behintzat, herritarrek, alderdi politikoek, koalizioek, federazioek eta hautesle taldeek euskal hauteskunde-administrazioari egiten dizkieten kexa, erreklamazio eta errekurtsioetan, eta gainerako harremanetan (50. edo 64.2 artikulua adibidez) bermatu beharko litzatekeela bi hizkuntzen erabilera. Izan ere, ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 16.2.b) artikulua babesean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak hauteskunde batzordeen esku jarriko ditu euren zereginak betetzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak.

Horrenbestez, Lege Aurreproiektuaren bitartez ekainaren 15eko 5/1990 Legean xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Euskal hauteskunde-administrazioarekin dituzten harreman idatzietan, herritarrek, alderdi politikoek, koalizioek, federazioek eta hautesle taldeek euskara eta gaztelania erabiltzeko, eta arreta hizkuntza berean jasotzeko, duten eskubidea bermatuko da.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko urtarrilaren 15ean

Ángel Lobera Revilla
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria